

Xabier, artzaia

Euzko Gaztedi, 2. zk., 1948-07: 5-6.

– Zaude ba'da geldik, Xabier! –zion aitona gizarajoak bere bilobaren biurrikeriak oso asarretuko ba'lute bezela. Bazekian agure jatorroak bere amonaren erritak alperrikakoak zirala, ta ume deabru ura geldik ikusi nai bazuan lonago umeari ipui bat umeari esan bearrean zala... Etzakan bada, otarako gogo aundirik aitona. Egun guzian baratz zati ura lantzen, gerria gogortu zitzaion ta oera joateko zaleturik zegoan....

– Egon ari geldik! –zion berriz amona gaixoak, umeari belarritik eldu ta astindutxo bat emanaz. –Oera beriala, garaia da ta....

– Utzi zaiozu umeari, amona, zu ere etziñan aingerua izango adin ortan da!...

– Bai, betikoa, umeari lañeza ematen, gaiztakeriz betetzen, guzti-guztia alperrik galtzen!!.... Neri ezezkoa esateagatik....

– Baiezkoa eman nizulako nago ba orain orrela!!... Etzaiozu jaramonik egin amonari, Xabier, ez negarrik egin.... Nik esango dizut orain ipui bat... Zatoz, malko oiek legortzera, mutilak ez dute beñere negarrik egin behar da.... –Aitona biloba, oraindik sotinka, belaunean artu, zer asmatu etzekiela txapelari jira-bira batzuek eman, da onela ekin zion:

– Orain dala bost egun urte, gutxienez, Adarrako arkaitz aundi aien azpian dagon zelai eder artan zaramakin XABIER, artzaia, bere ardi ta bildotx artean, zorionesko bizimodua.

– Bost egun asko da, je aitona!....

– Izango ez da ba! Ia mila ba'dira ta!!....

– Ta orduan XABIER izenekorik bai al'zan ba, aitona?....

– Esaten ez dizut, ba, Adarrako arkaitz pian bizi zan artzai aren izena XABIER zala?.... Esaten ari nitzan bezela, an bizi zan bordatxo polit batean zorionez betrik. Eguzkia, goizeko intza, gabeko izarrak, eta ango txantangorri, buxtanga, xoxo, biriarro ta beste txori guziak lagun zituala... Beti pozik, beti abeslari, beti paketsu ta zorionez beterik. Esne lodi ta mamitsua eranaz, gaztai koipetzu ta talo guria janaz...

Etzala ere an zebilen nonbait eta egun batean zuan ardirik ederrena ostu zion. Zoraturik zebilen gure XABIER batetik bestera, zulo guziak miatzen, arkaitz zulo guzietan bere ardiak esagutzen zuten txistua joaz... sotinka!, a negarrez!...

Egun guzian ardi galduaren bila, jo batera ta jo bestera, XABIER gizajoa oso nekatu zan iluntzerako, ta... lo artu zuan belar gozoaren gañean. An zegoan, orain, irriparez, bere ardiarekin jostatzen, ametzetan...

Dunbada izugarri batek esnatu zuan XABIER. Ua ikara!. Ebi tanto mardul batzuek erortzen asi ziran... Aiek trumoi ta tximistak!... Goibel zegoan, lurra ilun, trumoi otsak zoratze añekoak ziran Adarrako arkaitz pean, tximistaren oargiak oraindik geiago itxutzen zuan gure artzaia. Ura gabiroa, ordea, aiseak txistu, odei beltzak trumoi, tximistak inpernuko zua zabaltzen zuan edonun!....

An zijoan XABIER gizajoa, BASO-JAUNA azalduko te zitzaion bildurrak, olako soñuaz inguraturik asaltzen omen zan da... Murumendiko Andreari laguntz eske... Alako batean, "beeee"... xamur bat entzun zuan. Bai ote? Bere ardi galdua ote da?... Murumendiko andreak entzun ote zion?...

An zegoan ardi gaixoa, arkaitz zulo batean, ikaraturik, negarrez. XABIER'ek pozez beterik artu zuan lepo gañean ta an dijoa abeseko gogo izugarriarekin, bere bordaruntz. Etzuan orain tximist eta trumoiak ikaratzen; etzan BASO-JAUN'tzaz ere gogoratzen... Baño bordara eldu baño lenago BASO-JAUNA urten zitzaion bidera... Askotan entzun oi izan zuan, baño etzuan beñere ikusi izandu alako gizonik. Bere alako lau bai, begi aundi-aundiak ernai, ileak tente, leoiak bezela marruka... Ua ikara! Antxintxika, bere borda aldera abiatu zan, baño BASO-JAUNA'k, bere beso bulartzuekin gora jaso ta ardi gabe utzi zuan.

An geratu zan XABIER negarrez, busti-busti egin da, euri pean...

Ala zegoala azaldu zitzaion Murumendiko Andre ona, ederrez beterik, argi legun batez inguraturik, erdi parrez, xamur-xamur berari begira.

- Ez bildurtu -esan zion- nik ekarriko dizut ardia berriz. BASO-JAUNA ezta gaiztoa, ume aundi biurri bat baizik... Ta geiago ardirik galdu ez dedin, oraindik esagutzen ez dezun pixti bat emango dizut. TXAKURRA izena du, berak gordeko dizkizu ardia, zure lagun izango da beti.... -Ta txakur txiki polit bat ikusi zuan bere ondoan lenengo aldiz XABIER'EK....

Umeak lo artu zuan ta aitonak ere bai... gutxi barru.

Err. [Martin Ugalde]